

opusdei.org

Opus Dei-ko kidea zen Ernestina de Champourcinari buruzko liburu berri bat.

Ernestina de Champourcin.
Emakumea eta kultura XX
mendean. Rosa Fernández
Urtasun eta José Angel Ascunce
literatura irakasleek, XX.
mendeko literaturan eta
Errepublika denborako
erbesteratzean adituek,
koordinatu dute liburu hau

2005. urtean zehar Ernestina de Champourcin Gasteizko poetaren mendeurrena ospatu zuten ekitaldien amaiera gisa, *Ernestina de Champourcin, . Mujer y Cultura en el siglo XX* izenburuko liburua aurkeztu da Gasteizen, Biblioteca Nueva argitaletxeak aterata eta EHU/UPVko *Valentín de Foronda* Gizarte Historia Institutuaren eta Fundación Universitaria de Navarraren laguntzaz. Erakunde hauek mendeurrenaren ekitaldien antolaketa hartu zuten bere gain, beste erakunde batzuen laguntzarekin: Emakunde, Eusko Jaurlaritzak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila), Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Kultura Ministerioa, Instituto de la Mujer (Gizarte Gaietarako Ministerioa), eta Caja Vital Kutxa Fundazioa.

Rosa Fernández Urtasun eta José Angel Ascunce literatura irakasleek, XX. mendeko literaturan eta Errepublikaren denborako erbestearatzean adituek, koordinatu dute liburu hau. Hitzaurrea Santiago de Pablo, EHUKo Historia Garaikide Katedradunarena da. Liburuak Gasteizen 2005ean Ernestina de Champourcini buruz izandako Nazioarteko Kongresuaren ekarpenak jasotzen ditu. Bertan zenbait nazioetako (Frantzia, Mexiko, Estatu Batuetako) adituek parte hartzen dute eta Ernestina de Champourcinen biografia eta lan poetikoa aztertzeaz gain, XX mendeko emakumeek kultura, gizarte, politika eta abarri buruz egin dituzten ekarpenei ere ekiten diote, Gerra Zibilaren ondorengo erbestearatzeari batez ere begiratuz, erbestearatze honetan parte hartu baitzuen Ernestina de Champourcinek.

Ernestina de Champourcin 1905ean
Gasteizen jaioa, Juan José
Domenchina poetarekin, Ezkerra
Errepublikanoaren kide eta
Espainiako Errepublikaren
lehendakariaren idazkari zenarekin,
ezkondu zen. Horregatik, beste
milaka euskaldun eta espainiarrekin
batera, Ernestinak erbesteratu behar
izan zuen; Mexikon gelditu zen
bitzen, Franco hil baino denbora
gutxi lehenago Madrilera itzuli zen
arte. 27ko Belaunaldian parte hartu
zuten emakume gutxietako bat zen
Ernestina de Champourcin, eta
harreman estuak izan zituen
Ameriketako erbesteratuak zeuden
poeta eta intelektual askorekin.

.....